

# Aretxagazeta

ETA GAINERA...

## Ze barri?

GAIA

Jai giro polita  
Inauterietan /8

KIROLA

Herri Kirolen  
Olinpiadak /9

LEINTZ GATZAGA

Jolasak eta mozorroak  
Inauterietan /10



# Agur, plazako eraikinari!

## TELEFONOJAKINGARRIAK

OROKORRAK	
Almen	943 71 49 07
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkarte	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxio ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 71 19 59
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Saretxo	943 71 26 56
Taxi geltokia	943 79 22 33
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

## UDALTAINGOAK

Arrasate 943 79 14 39

## LARRIALDIAK

SOS Deiak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 79 71 99
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdia	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

## GUARDIAKOFARMAZIA

**ZAPATUA, 8**  
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. .... 943 79 21 99

**DOMEKA, 9**  
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. .... 943 79 21 99

## OHARRAK

### ARALARREN BATZARRA, HAUTESKUNDEEI BEGIRA

Udal hauteskunderi begira, Aretxabaletako Aralar alderdiak batzarra egingo du hilaren 11n, martitzena, Hiruatx taldeak Murubiden duen lokalean, 19:00etan.

## LORAMENDIRENAGENDA

### HITZALDIA EGUENEAN

Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle Alvaro Arrizabalagak hitzaldia egingo du martxoaren 13an, egunean, udaletxe zaharrean, 19:00etan. Alvaro Arrizabalagak *Historiaurrea Euskal Herrian* izango du hizpide.

## ORAINDELA 9URTEARETXABALETAN

### Santutxuko talde batek maskarada egin zuen

Santutxuko Gaztedi Taldeak maskarada egin zuen 1994ko martxoaren 6an. Goizean *Barrikada* izeneko agerraldia egin zuten Urkulu inguruan, eta arratsaldean plazan jarraitu zuten antzez-lana. Herriko elkarteek ere hartu zuten parte, eta jende ugari batu zen ikuskizuna ikusteko.



## BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

### "Dindirrixa"

Sudurretako izerdia.  
*Surretatik dindirrixa, katarrua...*  
*Surretako dindirrixa, izardixa beti.*



## LIBURUTEGIKOTXOKOA


### 'Txinpartaren izakiak'

*Mundua batera piztu gabe zegoen eta, artean, itzalita zeuden izakiak. Baina orduan Sugetzarrak piztu zen.*

Honela hasten du Añorgak unibertsuaren, biziaren sorrera esplikatzeko sorturiko mito itxurako ipuin filosofiko hau. Oso ipuin bisuala da, ahozko-tasunaren estilo nabaritzen zaio musikaltasunean, errepikapenetan eta elkarrizketetan. Pertsonaiak animaliak izateak eta elementu magikoak erabiltzeak ipuin tradizionalen itxura ematen diote.

Aipatu Mitxelenaren marrazkiak oso adierazgarriak direla, baina kolorez eginikoak direla esango nuke, eta ez zuri-beltzak, jarri dituzten moduan.

JOSEBA LOPEZ DE ARMENTIA



### TXINPARTAREN IZAKIAK

Pello Añorga  
Elkarlanean, 2002  
58 orrialde

## ZORIONAGURRAK



ARETXABALETA  
**Iñigo Arkauz**  
27an, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxekoen partetik.



ARETXABALETA  
**Julen Galiano**  
28an, 14 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxekoen partetik.



ARETXABALETA  
**Saioa Berasaluze**  
1ean, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxekoguztien partetik.



ARETXABALETA  
**Gabriel Morales**  
2an, 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxekoen partetik.




ARETXABALETA  
**Andere Etxabe**  
2an, 14 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxekoen partetik.



ARETXABALETA  
**Oier Arizabaleta**  
2an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxekoen partetik.



ESKORIATZA  
**Aitor Agiriano**  
4an, 17 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxekoen partetik.



ESKORIATZA  
**Alba Mazparrote**  
5ean, urtebete. Zorionak, osaba-izeben eta aitona-amonen partetik.




ARETXABALETA  
**Eneko L. de Armentia**  
5ean, 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxekoen partetik.




ESKORIATZA  
**Mikel Zubizarreta**  
7an. Zorionak, amama Inoren eta Aretxabaletako familiaren partetik.



ESKORIATZA  
**Eneko Zubizarreta**  
7an. Zorionak, amama Inoren eta Aretxabaletako familiaren partetik.



ESKORIATZA  
**Joseba Zubizarreta**  
7an. Zorionak, amama Inoren eta Aretxabaletako familiaren partetik.




ARETXABALETA  
**Fran González**  
7an, 12 urte. Zorionak, Mireiaren eta etxekoguztien partetik.



ARETXABALETA  
**Jenni Dávila**  
9an, 16 urte. Zorionak eta muxu bat, Mireiaren eta gurasoen partetik.



ESKORIATZA  
**Melissa Ferreira**  
10ean, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxekoguztien partetik.



ARETXABALETA  
**Ganitz Zubimendi**  
14an, 12 urte. Zorionak eta muxu handi bat, amaren partetik.

ARETXABALETAKO INDUSTRIALDEA F-0-4  
Tfnoa.: 943 791844 / Faxe: 943 792941

20550 ARETXABALETA  
info@eguzkigraf.com

# EGUZKIGRAF

inprimategia

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

## Zenbaki


# Aholkularitza

Basabe poligonoa, F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA  
Tel.: 943 71 21 12 - Fax: 943 71 22 68

## ATREBENTZIAEZPADA/ 'Euskaldunon Egunkaria'-ren' faltia igerten dozu? 'Egunero' erosten dozu?




**GURUTZE MUXIKA**  
Langillie




**RUBEN BEITIA**  
Langillie



**AINTZANE AIZPURUA**  
Langillie



**MIKEL IGARTUA**  
Ikaslie



**MIKEL MOLINA**  
Langillie



**ESTHER ERAÑA**  
Langillie

Bai. Lehenago, tarteka erosten neuen. Oin be batzuetan bakarrik erosten dot *Egunero*. Hala be, euskeraz irakurteko aukerie emuten euen, eta horregaitik igerten dot faltan.

Bai, bai. Lehenago *Euskaldunon Egunkaria*-ko erosten ez, baiñe irakurle banitzen, eta oin be *Egunero*-ren irakurle naz. Ez dakit harpidedun egingo nazen edo ez, pentsetan nabil.

Bai. Etxien ez dogu periodikorik erosteko ohiturarik, eta horregaitik *Euskaldunon Egunkaria* be ez neuen *Egunero* hartzen, eta oin *Egunero* be ez dot *Egunero* hartzen.

Bai, nahiko. Normalien irakurten neuen, eta oin be *Egunero* noixien behin irakurten dot. Harpidedun egiteko dirurik ez dauket, baiñe ondo pentsetan jat egin dittuen herri ekimenak.

Bueno, ez nitzen *Egunero*-ko irakurle, baiñe kontuen hartute euskerazko egunkari bakarra zala, ba bai, faltan igerten dot. Oin, *Egunero* noixien behin erosten dot.

Bai, asko, gaiñera. Oin *Egunero* hartzen dot *Egunero*. Oingo ez dauket harpidedun egiteko asmorik. Dana dala, euskaldunak bagare euskerazko egunkari bat biher dogu derrigor.

### TXALOAKETATXISTUAK



**TXISTUAK ETXAFUEGOAK JAURTI ZITUZTENEI** Aurten, orain artean, behintzat, jendea ez da etxafuegoen zaratagatik kezatu. Domeka gauean, baina, hau da, Aratuste gauean, Mitarte inguruan bizi zirenek ezin izan zuten lorik egin. Gau osoan etxafuego eta bonba hotsak izan ziren nagusi inguru hartan. Hango bizilagunak haserre daude, eta hona hemen, txistua./A.L.

### ETABARRUAN...

ARATUSTEAK /04

#### Gainbegiratu Aratusteei

Joan dira Aratustek, baina ahaztu aurretik domeka-ko eta martitzene-ko jaiak gogoratu-ko ditugu.

BATZORDEA /05

#### 'Egunkaria'ko batzordea

*Euskaldunon Egunkariari* laguntzeko batzordea osatu zuten joan zen astean.

KIROLA /06

#### Zaraia Mendi Taldea

Prest dituzte urtean barrena egingo dituzten mendi irteerak Zaraia Mendi Taldeko kideek.

### ASTEKODATUA

# 24

#### HARPIDEDUN 'EUSKALDUNON EGUNKARIA'-RAKO

*Euskaldunon Egunkaria*-ri laguntzeko herrian sortu den batzordea harpidetza kanpaina egiten hasi da. Denera 100 harpidedun egin gura dituzte. Aratuste egunean, hilaren 2an, 24 egin zituzten.

### BESTEKEESANA

“Hamabost mila erosle inguruk sustengatzen zuten *Egunkaria* itxi aurretik eta horietatik 6.200 harpideak ziren;

etxean *Egunero Egunkaria* jasotzen zutenak. Eta orain *Egunero* jasotzen dutenak. Milaka askoren babesa sumatu dugu guri bultzaka. Behar dugu bultzada hori, behar ditugu lehen genituen irakurleak eta harpide guztiak eta behar ditugu, inoiz baino gehiago, bultzada berriak, harpide berriak. *Egunkaria* berriro kalean izan dadin, sendotu dadin, harpidetzea da laguntzeko biderik onena.

Momentuko laguntza premiazkoa da; irakurleak dira *Egunkaria*-ren oinarri, baina harpideek luzerako arnasa ematen digute. Babesa ezin da zenbatu, baina gutxi gorabehera, harpidetza bakoitzak ordubeteko bizitza ematen dio proiektuari.

ARANTZAZU ARROIABE  
'Egunero'/03-02-28

### HERRITARRENBERBAK/ Resu Abasolo



#### Sasi "Kalitate Legea"

Urtexo batzuk badaramazkit hezkuntzan eta esperientziak sendotu egin nau uste batzuetan.

Kalitatezko ikastetxeen ezauzgarriak aipatzerakoan, hauxe azpimarratuko nuke: aniztasuna abiapuntu eta helburu izatea, partaidetzan oinarritzen den zuzendaritza, ikastetxe-erronkekin konpromisoa, elkarbizitza giro ona, kohesio handiko antolaketa, ikasleekiko espektatiba altuak, aprendizaiaren etengabeko hobe-kuntza, inplikatuaren arteko lankidetzeta, familien partaidetza eta laguntza, instituzioen bultzada.

Niretzat aurrerapauso galantak izan direnak, ez ditu hala ulertu Pilar del Castillok eta etengabeko irainak bota ondoren Hezkuntza sistemari (LOGSE) populazioa konbentzitu nahi izan du legea ezinbestekoa dela demostratzeko: eskola porrota, eskola mailaren jaitsiera, eskola giro eta elkarbizitzaren arriskua eta irakasleriaren ondoeza.

Eta non oinarritzen da sasi "Kalitate Legea"?:

- 1.-Ahaleginean: aurrera egiten ez duen ikaslea ahalegintzen ez delako da beti? Zer egin behar dut, nahiz eta ez ikusi ikaslea ahalegintzen dela demostratzeko? Legeak ikasleen jatorrizko desberdintasunak konpentsatu ordez bedeinkatu egiten ditu.
- 2.-Emaizten (kontzeptuen)

**"Kalitate Legeak ikasleen jatorrizko desberdintasunak konpentsatu ordez bedeinkatu egiten ditu"**

ebaluaketan: nola ebaluatuko dute ikaslearen autonomia, solidaritatea, kritikotasuna?

3.-Ikastetxeen eta irakasleen hierarkizazioan: lehenengo mailakoak eta bigarrengoak.

4.-Gurasoen partaidetza murrizten: Eskola Kontseiluek erabakirik gabe utziko dituzte.

Tristura handia ematen dudan legearen aurrean aurkitzen naiz. Ikastetxeetan sortutako kulturaren kontra dagoena, kalitatearekin zerikusirik ez duena eta atzean estatu eredu guztiz itxia, uniformatzailea eta elitista duena.

Konbentzitututa nago orain arte egindakoa ez dela alferriakoa izan, eta gure artean garatu dugun kulturak argia emango digula legea aplikatzerakoan ere.

# Aretxagazeta

Durana 11  
20550 ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 86 21  
Faxa: 943 77 18 54

Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA  
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA  
Mirari Altube  
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA  
Goio Arana

PUBLIZITATEA  
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA  
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA  
55-378-94

ISSN  
1134-2609

TIRADA  
3.800 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurilaritzako  
Kultura Saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Aretxabaletako  
Udala



Eskoriatzako  
Udala



Leintz Gatzagako  
Udala



M. J. Aretxaga

*Aratusteak gogoan*

Aurrera begiratzea gustatzen zait, baina gaurkoan atzera begiratu eta domekako aratusteak ere aipatu behar ditut. A ze giroa izan genuen herrian! A ze nolako mozorroak! Herriarrek benetako lana hartu zuten, eta hori eskertze-koa da. Guztiok gozatu genuen mozorroekin: egiptiarrak, Columbia espaziuntzia, Aita Santuaren bisita, lore saltzaileak... Pentsa, sakristaua bera ere harri-jasotze lanetan ibili zen, eta Perurenak baino hobeto altxatu zuen harria. Ez dakit konturatu zineten, baina GOITBko kamera eta kazetariak ere han ibili ziren. Tartean **Kepa Errasti** eta **Basetxean** ibilitako lagun bi: **Jokin Lekeitiokoa** eta **Iñigo Itziarkoa**. Domekan ez nituen ikusi, baina bai martitzenean GOITBek eskaini zuen saio berezian. A ze hirukotea!

Domekan sariak banatu ziren, ez zen lan erraza izango epaimahai-ko kideentzat. Baina denei ezin eman. Hala ere, beste herritar batek ere jaso du saria. **Felipe Arbulok** 300 euro irabazi zituen pilota partidu bateko emaitza asmatuta.

Eta bukatzeko gogoratu bihar egun esanguratsua dela emakumeontzat, martxoaren 8a. Ni behintzat saiatuko naiz ospatzen, sikiera pastel- txo batzuekin.

*M. J. Aretxaga*

**ARATUSTEAK/** Egiptiarrak eta 'Asterix' eta galiarrak nagusi aurtengo Aratusteetako Mozorro Lehiaketan

**Mozorro ikusgarriek eta eskoletako umeek girotu zituzten aurtengo Aratusteak**



Aita Santua konfiantzako gotzainek lagunduta hurreratu zen Aretxabaletara.



Astronautak barra-barra; Egunkaria-ren alde egin zuten horiek ere.



Lore saltzaileek Mozorro Lehiaketako gaztetxoeren sailean bigarren saria lortu zuten.



Arratsalderako eguraldia kaskartu egin zen arren, jende asko batu zen kalejiran.



UDAn lan egiten dutenek izugarritzko muntaia prestatu zuten, Cleopatra eta guzti.



Martitzenean, eskoletako ume eta gaztetxoek girotu zuten herria.

**KIOSKOA**



**ASTELEHENETIK AURRERA Durana 19an izango gara!**



Arantzazu Arroiabe *Egunkaria*-ko langile aretxabaletarra etorri zen joan den astean egoeraren berri ematera.

**EGUNKARIA/** Harpidedunak egitea eta 'Egunkaria'-ren aldeko babesa lortzea ditu helburu

## Batzordea osatu dute herrian, 'Egunkaria'-ren alde lan egiteko

MIRARI ALTUBE

Azken asteotan *Egunkaria*-ren egoera izan da euskaldunon ardurara handietako bat. Euskal Herriko herri askotan batzordeak sortu dituzte *Egunkaria*-ri laguntzeko, eta Aretxabaletan joan den astean osatu zen. Dirua batu gura dute, baina beste ekintza batzuk ere izango dira.

*Egunkaria*-ren itxierak eta langileen atxiloketek kirioak dantzan jarri dizkigute euskaldunoi. Gainera, bidegabeko egoera hori luzerako izan daitekeela ikusita, *Egunkaria*-ri laguntzeko batzordeak sortu dituzte hainbat herrian, baita Aretxabaletan ere.

### HARPIDETZAK ETA BABESA

Joan den astean, Arantzazu Arroiabe *Egunkaria*-ko langile

aretxabaletarra etorri zen Aretxabaletara euren egoeraren berri ematera eta batzordea osatzera. 50 bat lagun batu ziren Loramendiko txokoan, Arantzazuk esan behar zituenak entzutera. Haren esanetan, *Egunkaria*-k aurrera egin dezan ezinbestekoa da dirua, eta horretarako harpidedunak behar dituzte. Hortaz, taldeak osatu zituzten batzorde barruan: bata harpidetzaz arduratuko da eta besteak beste era bateko diru bilketak egingo ditu. Aratuste-domekan, esaterako, jo eta ke ibili ziren talde biak. Batzuek 24 harpidedun egin zituzten domekan eta besteek kamisetak eta zapiak saldu zituzten, baita eranskailuak jarri ere.

Edozelan ere, komunikabideetan agertzea eta herritarren aldetik babesa jasotzea ere garrantzitsu ikusten dituzte

*Egunkaria*-n, eta hori landuko duen taldetxo ere eratu zuten. Talde horrek, hain zuzen, antolatuko duen eguaztanean udaletxean izan zen prentsurrekoa; eta aurrera begira ere ekintzak antolatzen jarraitzeko asmoa dauka.

### HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Batzordea osatuta dago, eta herritar guztiek har dezakete parte bertan. Izan ere, herritar guztion laguntza eta parte-hartzea ezinbestekoak dira *Egunkaria*-k aurrera egin dezan. Hemendik aurrera ere hainbat ekintza antolatuko ditu batzordeak, bai dirua batzeko, bai euskaldunon babesa lortzeko. Diruari dagokionez, kontu-korrontea zabalik dauka *Egunkaria*-k, hona hemen zenbakia: 30350092560920055559. Gainera, bono laguntzak zabalduko dira egunotan.

## LABUR

### Astelehena eta eguaztana bitartean bota zuten udaletxea izandako eraikina, Herriko Plazan


Astelehenean hasi ziren Herriko Plazako eraikin nagusia botatzeko. Hasiere baten lehenengo solairura heldu arte makinak ez zirela sartuko esan zuten arren, hondeatzeko makinak teilatutik hasita bota du etxea. Martitzenerako gehientsuena botata zegoen, eta eguaztanean bukatu zuten erabat botatzen.

Otsaileko hirugarren astean hasi ziren eraikinaren ingurua hesiarekin ixten; izan ere, plazan eta Kurtzebarri Eskola inguruan ume asko ibiltzen dira. Azpeitiko Altzibar enpresa eraikitzaileari eman zion Eusko Jaurlaritzak lanak egiteko ardura, eta hark egingo ditu Kurtzebarri Eskolako DBHko ikasleendako ikasgelak. Behin eraikina botata 14 hilabete inguru beharko ditu eskola eraikitzeko; 2004-2005 ikasturterako gertu izango dute.

### Aralar taldeak batzarra egingo du, udal hauteskundeetara aurkeztuko dela esateko

Aretxabaletako Aralar taldeak maiatzean egingo diren udal hauteskundeetara aurkezteko asmoa dauka. Bere ezaugarrien berri emateko, hauteskudeei begira zerrenda osatzen joateko eta zalantzak argitu eta herritarren ekarpenak jasotzeko, batzarra egingo du datorren martitzenean, hilaren 11n, Hiruatz taldeak Murubide kalean duen lokalean, 19:00etan.


Hasierako zalantzen ostean, herritarrek eskatu eta animatuta erabaki du Aretxabaletako Aralarrek udal hauteskundeetara aurkezteko. Ezker abertzaleko ikuspegia proiektu zehatzen bidez errealitate bihurtzea du helburu, eta ezker abertzaleko sentsibilitateak elkarrekin lanean jardutea komenigarria dela deritzo.



### 90 urtetik gorakoei omenalditxo

Joan den domekan ospatu zuten Basotxoko erretiratuek Aingeru Guarda Eguna. Salda eta meza izan zituzten lehenengo, eta gero, 90 urtetik gorako bazkideei omenalditxo egin zieten. Bederatzi izan ziren omenduak; batzuk ezin izan ziren joan, baina denek jaso zuten opari bana. 14:00ak inguruan bazkaria izan zuten Taberna Berri jatetxean, eta 90 lagun elkarrekin ziren bertan. Eta dantzan eman zioten bukaera Basotxoko lagunek aurtengo Aingeru Guarda Egunari.

## BEIRALAN KRISTALDEGIA



- Ispilu bizelatuak
- Ateentzako beirateak
- Beirate grabatuak eta landuak
- Bainugelako altzari eta manparak
- Neurri zehatzetarako armairuak
- Enmarkazioak
- Lantegietako mantenimentua
- Beiran naiz metakrilatoan neurritan eginiko edozelango lanak


Herriko plaza, 8 behea • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670 997 274



# ARLUTZ

MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TEL. 943 79 32 34

Jon Díaz



Loramendi, 1  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABALETA

MENDIA

## Zaraia Mendi Taldeak gertu du 2003ko irteeren egitaraua

Aurten, Arabako Codes eta Boveda mendien arteko ibilbide historikoa egingo dute

AMAGOIA LASAGABASTER

Zaraia Mendi Taldeak gertu du aurtengo mendi irteeren egitaraua. Urtero legez, urte berria Murugainen hasiz eta urte zaharra Orkatzategin agurtuz osatzen dute urteko egitaraua. Tartean, baina, era guztietako irteerak eta ekitaldiak egingo dituzte aurten ere.

Ehun mendizaletik gora batzen ditu Zaraia Mendi Taldeak. Guztiak ez dira astebururo mendira joaten, baina, edozelan ere, Zariai horiendako guztiendako irteeraz jositako egitaraua kaleratu du aurten ere. Denera 32 irteera antolatu dituzte. Horietako batzuk, gainera, egun bat baino gehiagoko bidaiak izango dira. Aste Santuan, esaterako, urtero moduan astebeteko irteera berezia egingo dute. Gertatutako egitarauaren helburua da mendiak ezagutzen laguntzea eta lagun giroko irteerak antolatzea.

### IBILBIDE HISTORIKOA

Urtero ibilbide luze bat egiten ere saiatzen dira Zariaiakoak. Orain dela urte bi, Gipuzkoako Bira egin zuten; iaz, Arabako Lautadari itzulia egin zioten; eta aurten, Ibilbide Historikoa deritzon bidea egin gura dute, Araban barrena. Horretarako, Codesen hasi eta Bovedan amaituko duten ibilaldia gertatu dute. Tartean, Antoñana, Bernedo, Pipaon, Berganzo, Armiñon, Fontecha eta



MARTIN GARAI

Jende ugari hartzen du parte Zaraia Mendi Taldeak antolatutako irteeretan.

Villanueva de Valdegovia parte. Urtero, gure mendiak zaintzeko aldarrikapena egingez, Atxarteko harrobietan elkartzen dira Euskal Herriko txoko guztietatik etorritako mendizaleak, eta jakina, Zariaiakoak ere hantxe izango dira. Bestalde, urtero moduan, aurten ere Pirinioetara joango dira hiruzpalau egunez. Irteera hori ekainaren seitek zortzira bitartean egingo dute.

### APIRILEAN, MAÑARIRA

Apirilaren 6an, bestalde, beste hitzordu garrantzitsu bat daukate Zariaiako bazkideek. Egun horretan, *Mañaritik Naturara* izeneko ekitaldian hartuko dute

parte. Urtero, gure mendiak zaintzeko aldarrikapena egingez, Atxarteko harrobietan elkartzen dira Euskal Herriko txoko guztietatik etorritako mendizaleak, eta jakina, Zariaiakoak ere hantxe izango dira. Bestalde, urtero moduan, aurten ere Pirinioetara joango dira hiruzpalau egunez. Irteera hori ekainaren seitek zortzira bitartean egingo dute.

Mendi irteeretara Zariaiako bazkideez gain beste edozein joan daiteke. Horregatik, aurten ere gura duenak eskuragarri izango du 2003rako gertatutako egitaraua.

FUTBOLA

### Erregionaleko bigarren mailako UDA laster hasiko da igoera fasea jokatzeko

Oraingo asteburuan Bergararen aurka jokatu duten partidua erekin amaituko du erregionaleko bigarren mailako UDA taldeak ligako lehenengo fasea. Gero, martxoaren 15ean igoera fasea jokatzeko hasiko dira. Nedzad-ek zuzentzen duen taldeak denboraldi bikaina egin du orain arte eta taldeko buru direla amaituko dute ligako lehenengo fasea. Aurten, mailaz igotzeko fasean 14 partiduko jokatu beharko dituzte.

KIROL ETXEA

### Kirol etxean antolatutako Pala Txapelketan izen emateko epea zabalik dago oraindik

Martxoaren lehen asteko zen kirol etxeak antolatutako Binakako Pala Txapelketa. Baina haizeak jokalekuan egindako kalteen ondorioz bertan behera gelditu zen lehenengo jardunaldia. Edozelan ere, kirol etxeak teknikari Asier Muxikak esan digunez, jende gutxi eman du izena txapelketan, eta, hori dela eta, jakinarazi gura du oraindik gura duenak izena emateko aukera duela. Abonatuak 12 euro ordaindu beharko dituzte eta gainerakoek, berriz, 15 euro.

YOGA

### Sadhana yoga zentroak yoga saio berezi bat egin gura du martxoaren 22an

Encarna Méndezek zuzentzen duen Sadhana yoga eta psikoterapia zentroak gorputzaren eta adimenaren integrazioa saio berezia egingo du martxoaren 22an (zapatua). Saio horren helburua da joera humanista oinarri moduan hartuta gorputzaren eta adimenaren arteko harremana ikastaro baten lantzea.

Saioaren gaineko informazio zabalagoa gura baduzue, deitu 616 96 57 95 telefono zenbakira.

MURRUKIXO

### Aralarko Parke Naturalean ibilaldia egiteko irteera antolatu du Murrukixo Mendi Taldeak

Martxoaren 16an Aralarrean joateko irteera antolatu du Murrukixok. Han ibilaldia egin ondoren, Zeraingo sagardotegi baten bazkaria egiteko asmoa dute. Gura duenak Murrukixo Mendi Taldeko egoitzan eman dezake izena, martitzenetan.

# Zubia

oinetakoak



zapatak, zapatilak, gerrikoak eta poltsak

Mitarte 14 • 943 79 16 00  
ARETXABALETA  
Biteri 1 • 943 79 66 53  
ARRASATE

# MAITE

ileapaindegia

Sarasate, • 943 79 59 05  
ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP

# Garbiketa

orokorrak

Errekabarren 3- Behea  
ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 01 28

# Mortin

erloju-denda

Bere bezeroen  
zerbitzura

Mitarte, 16  
Tel.: 943 79 01 72  
ARETXABALETA

# Lasai

Mirian Manteca  
masajista

Lezama Zentru Komertziala  
Santa Kurtz 24, etxabea ARETXABALETA  
Tel.: 943 77 04 34

- Masaje terapeutikoa
- Posturen azterketan eta egokiratzean diplomaduna
- Osteopatia:
  - Kraneala
  - Estrukturala
  - Funtzionala
- Lotura muskularrak

# SANER

ITURGINTZA

Nafarroa 8, 2-A  
ARETXABALETA  
943 79 64 91  
605 71 66 92 / 629 47 72 70

# Mobiliario

ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

# Lie

LURRINDEGIA  
OPARI-DENDA

Mitarte, 18 • 943 79 38 59  
ARETXABALETA

## ERRETRATUZAHARRA

### Aozaratzza eta Koruetako ikasleak

**A**ozaratzako Sargarai Zabalen ateratako erretratua da. 1958. urte ingurukoa ei da, urte bat gora urte bat behera, eta Aozaratzza eta Koruetako eskoletako umeak dira guztiak. Koruetako umeek On Boni abadea zuten irakasle lehenengo urteetan, eta azken ikasturte biak egitera Aozaratzako maistrarengana joaten ziren. Hura agertzen da, hain zuzen, erretratuan. Bai maistrak bai abadeak gaztelaniaz erakusten zieten, jakina, eta Puri Altubek oraintsu arte izan du etxean falangearen gorabeherak kontatzen zituen eskolako liburua. 14 urterekin uzten zioten eskolara joateari gehientsuenek.

Lehenengo ilaran, ezkerretik hasita: ezezaguna, ezezaguna, Jabier Areitio, Juanito Arenaza, Josu Arenaza, Jose Antonio Uribetxebarria, Begoña Urkia, Mari Karmen Izurrategi, Itziar Errasti, Nuria (maistra), Marilu Madinabeitia, Begoña Errasti, Jesusa Zubia, Puri Altube, Kontxita Herrasti, Mari Angeles Uribetxebarria,



rria, Maritxu Arenaza, Juanita Jauregi, Mari Karmen Arkauz eta Marina Eraña.

Bigarren ilaran, belaueniko, ezkerretik hasita: Jose Herrasti, Jesus Maria Herrasti, Jose Maria Errasti, Felix Altube, Pedro Altube, Jose Inazio Arkauz, Mari Angeles Garai, Arantxa

Lasagabaster, Maria Luisa Uribetxebarria, Nieves Altube, Axun Isasmendi, Mertxe Arenaza, Mertxe Uribetxebarria, Mari Tere Leibar, Dolores Leibar eta Arantxa Altube.

Eserita: Jose Urkia, Jabier Arenaza, Anton Urkia, Juan Mari Arenaza, Jabier Jauregi, Arantxa Urkia,

Edurne Garai, Maria Pilar Altube, Rosa Marina Arrieta, Rosa Maria Arenaza, Begoña Uribetxebarria, Pili Madinabeitia, Juanita Arenaza eta Mari Karmen Uribetxebarria.

Argazkia: Puri Altube



## Aretxabaleta okindegia

*Basaben eta Loramendin gertu eta fin!*

Basabe 2. Tel. 943 77 00 81  
Loramendi 6. Tel. 943 77 17 19



# Ze barri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2003ko martxoaren 7a / 116. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

## Aurtengo Inauterietan izugarritzko jai giroa egon dela esan digute herritarrek

AINZANE GARDOKI

“Giro polita egon da eta herritar askok hartu dute parte aurtengo Inauterietan. Zapatu arratsaldean, behintzat, sanpedroetan baino jende gehiago ibili zen kalean”, esan digu eskoriatzar koadrila batek. Umeek eman zieten hasiera Inauteriei, Urdelardero Egunaekin. Martitzenean ere umeek ikuskizun ederra eskaini zuten plazan, eta Kurrumarruek ere ez zuten hutsik egin. Era berean, nagusi ugari, Inauteriak indartu guran-edo, etxean zituzten mozo-roak jantzita ibili ziren jaietan.

ARGAZKIAK: M.E./A.G.

*Zapatu arratsaldean giro ezin hobea egon zen; gauean, aldiz, mozorrotuta jende gutxi ibili ei zen*

*Martitzenean, tamaina txikiko txinatarrak, indiarrak, suziriak... eta beste izan ziren*



Umeek etxera erretiratu ondoren, banpiroek hartu zituzten kaleak.



Urdelardero eguneko ohiturari ederto erantzun zioten umeek.



Saguak, pailazoak, indiarrak... denak elkarrekin ibili ziren jai giroan zapatuan.



60ko hamarkadako moda aukeratu zuten bi lagunok.



Horra, punku koadrila argazki kamerari begira dotore!



Umeek martitzenean berriro kolorea jarri zioten inauteriari.



**TELEFONO JAKINGARRIAK**

<b>ESKORIATZA</b>	
Udaletxea .....	943 71 44 07
Udal bulegoak .....	943 71 45 32
Udaltzaingoa .....	943 71 44 07
Euskaltegia .....	943 79 21 68
Kultura etxea .....	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea .....	943 71 31 36
Kirol etxea .....	943 71 53 28
Liburutegia .....	943 71 31 25
Luis Eceiza .....	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola .....	943 71 44 86
Almen .....	943 71 49 07
Museo Eskola .....	943 71 54 53
Axtroki .....	943 71 40 77
HUHEZI .....	943 71 41 57
Osakidetza .....	943 71 44 52
Telesko .....	943 71 49 17
Taxiak .....	943 71 40 59

<b>BESTELAKOAK</b>	
Eskualde ospitalea (Arrasate) .....	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara) .....	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate) .....	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati) .....	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga) .....	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz) .....	945 23 20 30
PESA (Arrasate) .....	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate) .....	943 77 10 43
SOS Deliak .....	112

**OHARRAK**

**LABRIT KANTARIAREN KONTZERTUA**

Gaur, Labrit kantari usurbildarrak kontzertua eskainiko du gaztetxean, 22:00etan.

**AMUSKA, BILBORA**

Bihar, herriko emakume taldeak irteera egingo du, Bilbora. Arte Ederretako museoa bisitatuko dute, besteak beste.

**HUHEZI-N LITERATURA ASTEA EGINGO DUTE DATORREN ASTEAN BARRENA**

**HERRI KIROLAK**

**MUk antolatutako Herri Kirolen Olinpiadak egin zituzten pilotalekuan**

AMAGOIA LASAGABASTER

Otsailaren 25ean, goizean beste-lako kirol partidu batzuk jokatu eta gero, arratsaldean, herri kirol-tako lehenengo olinpiada probak egin zituzten Eskoriatzako pilotalekuan. Besteak beste, sokatira, txinga eramate eta arto kas-kara batzeko norgehiagokak egin zituzten. Oñatiko ETEO Fakultateko, Arrasateko Eskola Politeknikoko eta Humanitate eta Hezkuntzen Zientzien Fakultateko ikasleak ibili ziren lehian. Herri kiroltan onenak Goi Eskola Politeknikoko kirolariak izan ziren. Hala, horiek Donostiara joan beharko dute maiatzaren 9an, gainerako unibertsitateko parte-hartzaileekin lehiatzera.



Kirolariak Juan Manuel Erasun aizkolariaren laguntza izan zuten aizkora proban.

**LABUR**

**'Egunkaria'-ren aldeko herri batzordea**

*Egunkaria*-ren aldeko herri batzordea sortu berri dute Eskoriatzan. Axtroki euskara elkarteak egin zuen joan den astean taldea osatzeko deialdia; 10 lagun elkartu ziren lehenengo batzarrean. Dena dela, Axtrokitik esan digutenez, "batzordea irekia eta anitza da, eta edozein herritarri egin gura diogu *Egunkaria*-ren alde lan egiteko gonbita". *Egunkaria*-k dituen beharrei erantzutea eta herrian *Egunkaria*-ren aldeko ekimenak bultzatzea ditu helburu, besteak beste, batzordeak. Astelehenetan, 18:00etan, Axtrokiren egoitzan elkartuko dira eta 19:00etan, kale bilkura egingo dute plazan.



**Auto istripu ikusgarria**

Joan den domekan, hilaren 2an, auto istripu ikusgarria gertatu zen Olazar auzoan, 08:30ean. Automobil batek kontrola galdu zuen eta ibaira erortzeko zorian egon zen. Istripuaren ondorioz, gazte bi -21 urtekoa bata eta 24 urtekoa bestea- Arrasateko eskualde ospitalera eraman zituzten. Oraindik ez dakite zein arrazoiengatik irten zen automobila errepidetik./A.L.

**Villar**  
Ileapaindegia

Olazar auzoa, 9  
Tel.: 943 71 50 42  
ESKORIATZA



**bedardenda**

Tfnoa.: 943 71 43 27  
ESKORIATZA

**ENRIKE MAZMELA BOLINAGA**

HORTZ  
KLINIKA



Eduardo Gorosari, 3-1. Esk.  
Tel: 943 71 47 36



Aranburuzabala, 22 behea  
ESKORIATZA  
Tfnoa.: 943 71 51 20



- Sukaldeko Bateriak
- Lapiko Lasterrak
- Zartakin eta Paeilaontzi itsasgaitzak

Aingeru Ibiltoki 3  
Tel.: 943 71 31 29 Eskoriatza 20540

**AZKOAGA**  
ESTANKOA

943 71 48 77  
Zure  
Zerbitzura

**LENIZ, C.B. KONPONKETAK**



TXAPA, MARGOA  
eta MEKANIKA

Aingeru Ibiltokia, z/g. • Tfnoa.: 943 71 50 61

# Indiarrak, behizainak, txinatarrak, arabiarrak eta 'Bob Marley', Gatzagan


AINTZANE GARDOKI

Mundu osotik etorritako arraza askotariko lagunak egon ziren joan den asteburuan Leintz Gatzagan. Herria ez zen jendez gainezka egon, baina etxe bakoitzetik onenak bertan izan ziren, dudarik ez. Herriko txikienek jolas eta dantzan egiteko aukeraz gozatu zuten.

Zapatu arratsaldean hasi zen jaia. Jolas ugari egin zituzten umeez, eta aldez aurretik prestatutako mozerroak erakutsi zituzten. Desfilearen ostean, hainbat lagun saritu zituzten: Argitxu Zubillaga indiar jantzita, Beñat Agirreurreta *Harry Potter* jantzita eta Lur Uribetxebarria moja jantzita.

## DANTZAN GOIZALDERA ARTE

Hogei bat nagusik eta beste horrenbeste umek afaldu zuten Ostaturun. Behizainak, hinduak, zantantzarrak, pailazoak, *Bob Marley*, Poloniatik joan-etorri azkarra egin zuten mairua... Afalostean dantzan ibili ziren goizaldera arte. Taberna itxi eta gero, parrandarekin jarraitzeko Toki Eder faltan igarri ei zuten batek baino gehiagok.



Bob Marley jamaikarra ere gustura ibili zen Gatzagan.



Txikienek, gura beste jolas egin eta gero, desfilea egin eta argazkia atera zuten.



Hilabeteetako umea ere festan murgilduta ibili zen joan den zapatu arratsaldean.



## Lore eskaintza egin zuten txirindulariek

Joan den domekan, hilaren 2an, Arabako eta ibarreko txirindularizaleak Dorletan egon ziren, eta Amabirjinari lore eskaintza egin zioten. Espero baino txirindulari gutxiago hurreratu zen santutegira. Dena dela, giro polita egon zen Dorletan: abadeak txirindulariak bedeinkatu zituen, haiek lore eskaintza egin zioten Amabirjinari, eta Bahamontesek, Ocañak, Indurainek eta Olanok Amabirjinari eskaintako kamisetak interes handiarekin ikusi zituzten. Gero, luncha egin zuten.

## LABUR

### Sorginak emakume taldeak bazkaria egingo du bihar

Martxoaren 8a dela aitzakia hartuta, herriko emakumeek bazkaria egingo dute bihar Gure Ametsan. Eguerdiko ordu batean elkartuko dira emakumeak jatetxean, eta ohiko argazkiak egin eta gero, bazkaldu egingo dute: sarre-rakoak, arkumea eta postrea. Bazkalostean dantzaldia izango dute iluntzera arte. Era berean, hiru isuski banatuko dituzte oraindik isuskirik ez duten sorginen artean. Datoren hilabeteotan ere egingo dituzte hainbat ekitaldi.

Zapatuan, martxoak 8

# GATZAGAKO EMAKUMEEN BAZKARIA

Gure Ametsa jatetxean  
ONDOREN DANTZALDIA

Zatoz, emakume!





# Maulanda *merenderoa*



## MAULANDA MERENDEROA

Maulanda Auzoa, 20540 ESKORIATZA  
Tel.: 943 71 47 20 eta 943 71 54 56

Eguneko  
menua



# Egunkaria aurrera!

## Orain! Inoiz baino gehiago euskarak behar zaitu.

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzuak

Elkartasunerako kontu korrontea

k/k 3035.0014.62.0140053171



**TOPAGUNEA**  
EUSKARA ELKARTEN FEDERAZIOA

Kontu hau Topagunea Euskara Elkarten Federazioak ireki du: euskalgintzak jasandako kalteei aurre egiten kolaboratzea eta euskaldunok informatuta izateko dugun eskubidea bermatzen laguntzea du helburutzat diru bilketa honek.

### Egin zaitez harpidedun

Dagoeneko  
baldin bazara ez bete

Izen abizenak	-----	-----
Helbidea	-----	P.K. -----
Herria	-----	-----
Telefonia	-----	-----
k / k	-----	-----
N.A	-----	-----
Jaioteguna	-----	lanbidea -----

Eman zure herriko batzordeari edo bidali helbide honetara: Martin Ugalde Kultur Parkean, eraikin zuria, 20140 ANDOAIN. Bestela 943 30 35 55 / 943 30 35 54 telefonoetara deitu.

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada  
**giro!**

**Amets taberna**



Taberna eta kafetegia  
Iparragirre 4. 943 79 01 29

**ORLY**

Herriko plaza  
943 79 09 33  
ARETXABAleta



*Matikua jatetsxea*

Azatza auzoa ARETXABAleta 943 79 16 68

**URBALTZ**  
TABERNA



Mitarte, 21 behea  
Tfnoa.: 943 79 79 79  
ARETXABAleta

**JOSU**

taberna  
harategia

Urdaitegia-gozotegia  
Kroasantegia  
Gertatutako janariak

Mitarte 1  
Tel.. 943 77 03 08



**HIRUSTA JATETXEA**

Zatoz gure sukaldea ezagutzera



Ilargi plaza 4. Tel. :: 943 79 06 57

**IBARRA**  
JATETXEA

Menua  
eta  
karta

Araba ibilbidea 29  
ARETXABAleta  
943 79 18 03



*Mitartegarai*



Areantza auzoa, Aretxabaleta  
943 79 17 51

**IZOTZ**  
Taberna

Mitarte, 16  
Tel.: 79 73 65  
ARETXABAleta

**Txalaparta taberna**



Aranburuzabala 25 ESKORIATZA

**GOYARAN ERRETEGIA**



Eguneko menua

Solohaundi 25 Aretxabaleta 943 79 68 57

ESKORIATZA

**Bazkariak**  
eta  
**afariak**

Tfno 714345



ERRETEGIA

Mendiola auzoa  
ESKORATZA  
943 71 43 45  
Astelehenetan  
itxita

**OTZETA**  
taberna jatetxea



Aranburuzabala 7  
ESKORIATZA. 943 71 51 90

**NAIRA**  
Taberna

Aranburuzabala 16  
Eskoriatza. 943 71 46 71